

AHOTIK at



Euskadiko Gazteriaren Kontseilua

N6 //EKAINA_JUNIO09

Astialdi Hezitzailea
Tiempo Libre Educativo

eskoia



Aurkibidea //

Indice



Editoriala – Editorial.....	3 or.
Astaldi Zutabeak / Columnas de Opinión	4-5 or.
Euskararen aurpegiak astaldian	6-7 or.
Jauzi egin paper, uhin eta pantailletara.....	8 or.
Astaldiaren erronkak (Aisi – Hezi).....	9 or.
Sei gai, sei jolas	10-12 or.
Profesionalización y titulaciones en el tiempo libre educativo	12-14 or.
Conclusiones TIPI TOPA	15-21 or.
Educación formal y administración: una experiencia alemana	22-23 or.
Publicación: Tiempo libre educativo en Cantabria.....	24. or.
Las nuevas tecnologías en el tiempo libre educativo.....	25-27 or.
Publizitatea	28 or.

Argitaratzen dute_ editan:

Euskadiko
Gazteriarren
Kontseilua



www.egk.org

Consejo de
la Juventud
de Euskadi



Babesleak_financiadores:




Laguntzaileak_colaboradores:



Erredakzioa eta argazkiak_Redacción y fotografías: EGK

Diseinua_Diseño: Nemo estudio



Astialdi Hezitzailea

Tiempo Libre Educativo

Astialdi hezitzailea da gazteen elkartegintza egituratzen duen ardatz nagusietako bat. Gazteak eta ez hain gazteak, adin, jarrera ideologiko eta baldintza sozial ezberdinetakoak, militante gisa ari dira gizarte aldatzeko lanean euren denbora librean. Gure lurraldearen luze-zabalean, milaka eta milaka haur dabilta aisialdiko ehunka taldek garatzen dituzten hezkuntza jardueretan. Eraiki dezakegun beste mundu horretara iristeko bideak, besteak beste, honako hauek dira: elkartasun-balioak garatzea, naturarekiko errespetua, hezkidetzaren, bakearen kultura eta indarkeriarik gabekoa garatzea, herritar eragileak izateko prestakuntza eta abar.

Militantzia, borondatezko lana, arazo publikoetan parte-hartzea eta antzeko balioak atzeraka doazen garaioetan, lehenik eta behin, poztu egin beharko genuke kolore anitzeko mugimendu horrek daukan indarra eta kemena ikusita, eta gero, egiten duten lan izugarria aitortu, oso gutxitan aintzat hartzen baita duen balio guztian.

Kopuruari begiratu gero, gazteek parte hartzen duten gizarte mugimendurik handiena izango da, baina gehienetan ez zaio behar duen aitortzarik egiten. Erakundeen esparrutik ez zaio beti merezi duen ezagutza eta balioa ematen astialdi hezitzaileari, nahiz eta herritartasuna eta balioak lantzeko eskola bikaina izan; egoera hori argi islatzen da hari laguntzeko behar diren aurrekontu-partidetan, eta baita gazteen aisialdi eta denbora libreko politikak definitzeko solaskidetzaren eta lankidetzaren aintzat hartzeko orduan ere. Bestalde, gainerako gizarte mugimenduek mesfidantzaz begiratzen diete aisialdiko talde hauei. Kezka eta borroka nabarmenagoetan sartuta daudenez, sarritan ez dute aitortzen hezkuntza lan horrek epe luzera duen garrantzia eta gizarte-aldaketarako oinarriak jartzen ari direla.

Azken hamarkadetan gertatu diren eraldaketa sozialek ekarritako aldaketei aurre egiteaz gain (indibidualismoa, pribatua publikoaren gainetik jartzea...), astialdi hezitzaileko mugimenduak bere baitako eronkei ere aurpegi eman behar die. Hartzaitzaren erakargarriagoa izateko formulak bilatzea, astialdi hezitzailea lanbide bihurtzea dela-eta dagoen eztabaidan jarrera hartzea, administrazio publikoek eskaintzen duten aisialdi eta denbora libreko baliabideekiko harremana, gure gizartearen aniztasunak eta kulturartekotasunak dakarren eronka, astialdi hezitzailea hortik urrun dauden maila sozialetara hurbiltzea...; elementu horien guztien aurrean jarrera ezberdinak daude mugimenduaren baitan, eta horregatik, elkarlana eta elkarrizketa eskatzen dute tartean dauden eragileen artean.

Hamarkada batetik hona, elkarlan eta elkarrizketa hori egiten ari da Astialdi Foroaren baitan, eta azkeneko urtean aisialdiko federazio eta eskolatatik kanpo zabaldu nahi izan da, Tipi Topa prozesua eta Astialdi Hezitzaileari buruzko biltzarren bidez. Izan ere, Euskadiko Gazteariaren Kontseiluak argitaratzen duen Ahotik At aldizkariaren seigarren zenbaki honek horixe nahi du: prozesu horretan izan diren eztabaidak eta ondorioak ezagutarazi eta, hortik aurrera, mahai gainean geratu diren auziak berriro aztertzen hasi.

El tiempo libre educativo pasa por ser uno de los cauces centrales en torno a los que se estructura el asociacionismo juvenil. Personas jóvenes, y otras que no lo son tanto, de distintas edades, posicionamientos ideológicos y condiciones sociales que apuestan por dedicar militantemente una parte de su tiempo libre a trabajar por la transformación social. Son decenas de miles las niñas y niños involucrados en las actividades educativas desarrolladas por los cientos de grupos de tiempo libre que se distribuyen a todo lo largo y ancho de nuestro territorio. El desarrollo de valores solidarios, el respeto por la naturaleza, la co-educación, el desarrollo de una cultura de paz y no violencia, la formación para la ciudadanía activa... estos son, por citar algunos, los caminos que se quieren recorrer para acercarnos a ese otro mundo posible que aspiramos a construir.

En unos tiempos donde valores como la militancia, el voluntariado o la implicación en la cosa pública están en franco retroceso, lo primero que debemos hacer es alegrarnos por la vigencia y la pujanza de este gran movimiento multicolor, para acto seguido reconocer el ingente trabajo, pocas veces puesto en valor y reconocido, que se realiza.

A pesar de ser numéricamente el mayor de los movimientos sociales en el que las personas jóvenes se implican, habitualmente no tiene el necesario reconocimiento. Desde el ámbito institucional no siempre se reconoce y se le da el necesario valor al tiempo libre educativo como gran escuela de valores y ciudadanía, teniendo esta situación reflejo tanto en las partidas presupuestarias dedicadas a apoyarlo como a su consideración como colaborador e interlocutor en la definición de las políticas juveniles de ocio y tiempo libre. De la misma manera, el resto de los movimientos sociales no dejan de mirar a estos grupos de tiempo libre con recelo. Involucrados en preocupaciones y peleas mucho más tangibles, no siempre reconocen la importancia de esa labor educativa a largo plazo y que pone los pilares en los cuáles sustentar el cambio social.

Además de afrontar los cambios derivados de las transformaciones sociales de las últimas décadas (individualismo, primacía de lo privado sobre lo público...), el movimiento de tiempo libre educativo tiene que encarar, también, una serie de retos propios. La búsqueda de fórmula que lo hagan ser más atractivo ante los ojos de sus receptoras, su ubicación ante el debate de la profesionalización del tiempo libre educativo, su relación con los recursos de ocio y tiempo libre ofrecidos por las administraciones públicas, el reto de la interculturalidad y la diversidad de nuestra sociedad, acercar el tiempo libre educativo a aquellos estratos sociales actualmente más alejados... son todos ellos elementos ante los que existen distintos posicionamientos en el seno del movimiento y que, por tanto, nos llevan a vislumbrar la necesidad del trabajo en común y el diálogo entre los distintos agentes implicados.

Trabajo en común y diálogo que se viene dando desde hace más de una década en el seno del Astialdi Foro y que a lo largo del último año se ha querido extender más allá de los límites de las federaciones y escuelas de tiempo libre a través del proceso Tipi Topa – Congreso sobre Tiempo Libre Educativo. Precisamente este sexto número de la revista Ahotik At, editada por Euskadiko Gazteariaren Kontseilua, pretende colaborar en la difusión de las conclusiones y los debates desarrollados a lo largo del proceso como punto y seguido a partir del cual retomar las distintas cuestiones que quedan sobre la mesa.



/// Igor Mera Uriarte

Presidente del EGK
EGKren presidentea

Iritzia //

ATZEGI

Esti Zabala Uranga

Aisialdia eskubidea al da?

> Atzegik argi dauka guztion eskubidea izateaz gain, pertsona gisa garatzen laguntzeko beharrezkoa dela. Hori dela eta, gure elkartearen ametsetako bat, adimen urritasuna duten pertsonen aisialdi aukerak, beste edonorenak bezalakoa izatea da. Badakigu era berean, ametsak betetzeko gizartearen baloreen eraldaketan lanean jarraitu behar dugula, aisialdira zuzendutako baliabideak pertsona bakoitzaren beharretara egokitzuz eta erantzun indibidualagoak emanez.



ATZEGI

Esti Zabala Uranga

Aisialdia eskubidea al da?

Pertsona boluntarioa, gizartearen transformazioan ezinbesteko elementua da. Beraien esperientzi eta bizipen pertsonalek, inguruko pertsonengan eragiten dute eta adimen urritasuna duten pertsonetara ikuspuntu positiboagoa eta normalizatuagoa izatea ahalbidetzen du. Atzegiren kezka nagusietako bat, aisialdian adimen urritasuna duten pertsonen erabateko integrazioa da. Aisialdi taldeek, pertsona guztien parte hartzea bultzatu behar dute, inolako bazterketarik gabe, eta pertsona ororen behar eta egoeretara egokitzuz.

EUSKALERRIKO ESKAUTAK BIZKAIA

Josu Grandibal Maguregi

El Tiempo Libre Educativo en Euskadi no está muerto...

Si es verdad que cada vez las entidades y asociaciones lo tienen más difícil, ya que la sociedad en la que vivimos está cambiando, y tal vez los grupos de tiempo libre no lo hacen al mismo ritmo. Además, cada vez hay menos voluntariado, y eso quiere decir que hay menos gente para realizar la labor educativa en el ámbito de la educación no formal. Y si seguimos sumando dificultades, muchas veces tampoco hay el suficiente apoyo y promoción de esta labor, por parte de las instituciones públicas.

EUSKALERRIKO ESKAUTAK BIZKAIA
Josu Grandibal Maguregi

El Tiempo Libre Educativo en no está muerto

Uno de nuestros retos es que los grupos, puedan realizar su trabajo en otros espacios, como puede ser gestionando o poniendo en marcha espacios socio-educativos en los pueblos y barrios; pudiendo llegar a otros chavales y chicas que desde los grupos no se llega. Seguiremos caminando, y trabajando por nuestros grupos de Tiempo Libre, necesarios para la transformación social de nuestro pueblo.

URTXINTXA ESKOLA BIZKAIA

Bego González García

JABETU, ERAGIN ETA ZABALDU!

Auzoko astialdi taldea, astialdi eskolak, begirale ikastaroa, udalekuak, monitoreak, hezitzaileak... eta beste hamaika hitz etortzen zait burura Astialdi Hezitzaileari buruz hitz egin behar dugunean. Trebakuntzan zein interbentzioan, helburu berdinak bat-

Astialdi Zutabeak

Columns De Tiem



IA
en Euskadi

zen gaitu: gure hurbileko errealitate eraldatzeko nahiak eta asmoak, hain zuzen.

Baina gure burua lan hau egiteko gai ikusten dugu? Benetan, daukan garrantzia ematen diogu? Eta jendarteak, egiten dugun lana, eraldatzaile ikusten al du?

Nire ustez, hauxe da aurrean daukagun erronka. Gure ahalmenetan sinestu behar dugu eta gainerakoei sinestarazi. Neska eta mutilen arteko berdintasunaren alde lan egin ahal dugulako, euskaraz bizi ahal garelako, kultura desberdinekin bizikidetzeta posiblea delako, azken finean, bultzatzen ditugun balioak transmititzeko gai garelako. Trebakuntzak ematen dizkigun baliabideekin eta bizipenek emandako eskarmentuarekin, kaleak kolorezta ditzagun!

KALE DOR KAYIKÓ GAZTEAK

Unai Rodríguez Santa Cruz

ENSEÑAMOS VIVIENDO

Nacimos hace 20 años con el fin de concienciar, formar, asesorar y promover el debate sobre todo lo relacionado con la escolarización, convivencia y promoción de la Cultura Gitana. Apostamos por la Educación no formal en forma de **“Pedagogía del Gerundio”** tan típica del Pueblo Gitano que históricamente hemos enseñado viviendo y aprendido haciendo y que tradicionalmente viene siendo nuestra manera de funcionar y de transmitir valores de generación en generación. Desde esta línea, proponemos una serie de actuaciones de Participación Social e Interculturalidad en el marco del desarrollo comunitario y del ocio y tiempo libre en espacios donde podamos compartir las personas de diferentes etnias y culturas para transformar entre todas la sociedad en la que vivimos, superando la discriminación, el racismo y las desigualdades sociales.

ULERTUZ ELKARTEA

Amagoia Osinalde Mendibaso

Leihotik begira

Leihotik begira jarri eta hezkuntza ez-formala topatu dut plazaren alde batean eserita. Askotan ikusi dut horrela. Azken aldian ez du oso sentibera barnealdea, inork ez dio aurrera nola egin azaldu. Inguruan du edonolako jendea; koloretsua eta ahalmen ezberdinez eratua. Berak noizbehinka egin du hala-holako saiakera baina bide egokia zein den eta aurrera nola egin ez daki eta honetan hausnartzen ere ez dut oso sari sumatu.

Hala ere, leiho honetatik amets egiten ikusten dut eta inguruko pertsona guztiekin egiten du amets. Ortzadarraren adina



KALE DOR KAYIKÓ GAZTEAK
Unai Rodríguez Santa Cruz

Enseñamos Viviendo

kolore lortzea du erronka. Zuri beltz eta gris izan den horrek, kolore biziz egiten du amets. Horretara bultzatzen du inguruak. Leihotik begira kezka bat suertatzen zait; ez ote ditu ba begiak zabaldu eta parkeko bazter horretan jarraituko? Geldirik. Temati. Nagi. Inguruak eta bere barrenak nahi duten hura lortzeko, bidea egin behar da. Eta ez, ez dago bakarrik. ■

04/05

/// AHOTIK at



URTXINTXA ESKOLA BIZKAIA
Bego González García

Jabetu, Eragin Eta Zabaldu!



ULERTUZ ELKARTEA
Amagoia Osinalde Mendibaso

Leihotik Begira

mpo libre

EUSKARAREN AURPEGIAK

> Euskal Herriko astialdiko talde eta eskola gehienen helburuetako bat euskara sustatzea da, haien ildo estrategikoaren atal nagusienetako bat dute. Hala eta guztiz ere ez da hain erraza gure hizkuntzaren normalizazioa testuinguruari so egiten badugu. Artikulu honetan Itsaso Anduezak (Hezkide Eskola) eta Ane Olabarrik (Urtxintxa Eskola) kontatzen digute, egunerokortasunean oinarrituz, haien jarrera euskararen aurrean. Bi eskola, helburu bat: astialdiaren eta gehiengoaren barreak, negarrak, oihuak, eztabaidak... etorkizun hurbilean euskaraz izatea.

Ane Olabari Etxebarria

*Euskara arloko arduraduna
Urtxintxa Eskola*

Urtxintxa Eskolaren helburu nagusietako bat, jendartean gure hizkuntza den euskararen normalizazio prozesuan parte hartzea da, hizkuntza minorizatua den heinean, bere biziraupenerako lan eginez.

Eskolan lantzen diren hiru arlo estrategikoetako bat, euskara arloa da, eta arlo

honen helburu nagusia, jendartean euskara sustatzea da, motibazioan, ezagutzan, erabileran eta transmisioan eraginez. Hauek dira, besteak beste, arlo honetatik bideratzen ditugun egitasmoak: Haur eta gazteen artean, euskara sustatzeko saioak, gurasoek (eta familiako kideek) haurrekin euskaraz egiteko eta gozatzeko ikastaroak, herrian euskara kalera ateratzeko programak eta irakasleei, ikasleekin euskara lantzeko baliabideak. Horrez gain, gure begiraleekin, beraien lanean eremu hau indartzeko trebakuntza saioak egiten ditugu.

Lan honetan ari garenok, egoera desberdinekin egiten dugu topo. Eskualde edo herriaren arabera eta adin tartearen arabera, errealitate linguistikoa asko aldatzen da, beraz, egitasmo bat burutu aurretik, ingurune horretako euskararen egoera aztertzen da eta horren arabera helburuak, edukiak eta metodologia zehazten dira.

Dena den, badago joera orokor bat lurralde osoan antzeman daitekeena, eta hau, aisialdiaren esparruan nabarmentzen da batik bat. Gazteen artean adierazkortasuna bilatzeko orduan erdarara jotzeko duten ohituraz ari gara, hain zuzen. Badirudi, aldameneko bi hizkuntzek gazte hizkera edo hizkera informal indartsuagoa dutela eta Euskal Herriko gazteek, hauetara jotzen dute haserretzeko orduan, ligatzeko orduan, jolasteko orduan... eta ez hori bakarrik, aisialdiko tresna eta produktuak erdaraz kontsumitzen dituzte, nahiz eta euskarak horretarako baliabideak eskaini.

Hau da beraz, aisialdian euskara sustatze aldera lan

Elebakartasunaren aldeko apustu honek, ez duela elkarte edo pertsona erdaldunekiko harremana baldintzatzen, hau da, euskaraz ez dakiten etorkin taldeekin, gai zehatz batzuetan adituak direnekin lan egiten dugu

egiten dugunon erronka nagusia. Gure helburua, haur eta gazteei, euskara egunerokotasunerako tresna izan daitekeela erakustea da, hau da, hizkuntza hau bizitzako esparru gehienetan erabiltzea posible dela demostratzea. Honetarako erabiltzen dugun metodologia, hezkuntza formalean erabiltzen den metodologiatik urrun geratzen da; ekintza gozagarri eta berritzaileen bidez, haur eta gazteak era oharkabe batean euskaraz egitera animatzea eta euskal mundura hurbiltzea da gure apustua, obligazioak ahaztuz.

Hau aurrera eramateko, gure egitasmoetako begirale eta hezitzaileak euskaldunak eta euskararekiko kontzientzia dutenak izaten dira eta eremu honetan eragiteko trebakuntza jasotzen dute. Horrez gain, erabiltzen den material guztia ere euskarazkoa izaten da. Eskolan, euskara hartzen dugu prozesu eta urrats ororen abiapuntutzat, barne dinamika osoa ere euskaraz delarik, hortik dator beraz, elebakartasunaren aldeko apustua egitearena.

Urtxintxa Eskolaren langileria osoa euskalduna da, elkartearen irudi korporatiboa eta hizkuntza paisaia euskarazkoa da, programa informatiko oro euskaraz dauzkagu, kanpo eta barne harremanak euskaraz izaten dira eta sortzen diren egitasmo eta argitalpen guztiak euskara hutsezkoak dira. Dena den, salbuespen batzuekin topo egiten dugu baieztapen honetan.



ASTIALDIAN

Salbuespen hauetako batzuk, jendartearen euskarak aurkitzen dituen oztopoei dagozkienak dira, hau da, administrazioaren esparruko arlo batzuetan erdara erabili beharra, egitasmo batzuk bi hizkuntzetan aurkeztu beharra... eta beste albuespen mota, erdara euskara sustatzeko helburuarekin erabiltzean datza, kontraesana badirudi ere. Nola? Bada guraso erdaldunei haurrekin euskaraz hitz egiten hasteko bideak erakutsiz, edo haurrekin euskaraz jolasteko baliabideak eskainiz...

Aipatu ere, elebakartasunaren aldeko apustu honek, ez duela elkarte edo pertsona erdaldunekiko harremana baldintzatzen, hau da, euskaraz ez dakiten etorkin taldeekin, gai zehatz batzuetan adituak direnekin... lan egiten dugu eta bien arteko zubi hau aprobetxatzen dugu, beste herrietako hizkuntza gutxituen egoera ezagutzeko eta baita ere, gure euskal mundua erakusteko.

Bukatzeko, esan, lan honen fruituak berehala ikusten ez diren arren, apurka-apurka lorpen txikiak eskuratzen ari garela, hortaz, ekin dezagun sinisten dugun horretan ilusioz eta etsi gabe lanean!

Itsaso Andueza Fernández
Astialdiko arduraduna eta
boluntarioen arduraduna
Hezkide Eskola

Jakin badakigu geroz eta jende gehiagok dakiela euskaraz. Erabilera ordea, ez da neurri berdinean hazi. Astialdiari dagokionez, denetarik aurki daiteke, baina orokorrean, euskara sustatzera jotzen da. Astialdi talde eta eskolak non kokatzen diren erabakiorra da euskararen erabilerarako. Errealitate ezberdinak ematen dira: herri txikietan euskara nagusitzen da; hirietan berriz, gaztelerako eskaintza zabala aurki dezakegu oraindik ere.

Hezkide Eskolak euskararekiko egiten du apustu bere idearioan eta hala isladatzen da bere ikastaroetan; nahiz eta oraingoz, guztiak ez diren hizkuntza honetan egiten. Eskolako giroa eta langile eta boluntarioen arteko hizkuntza euskara da.

Lantzen diren hiru prestakuntza alorretatik, euskara hutsean egiten den bakarra astialdikoa da, geroz eta gazte gehiagok dakitelako eta heziketa mundua, horretan lan egin nahi badute behintzat, gehien bat euskalduna delako.

Bestalde, ikastaro asko gazteleraz egin behar izaten dira ikasle taldearen beharrei erantzun ahal izateko. Ikastaro hauetako ikasleen batez-besteko adina, astialdiko ikastaroena baino altuagoa izaten da. Beste batzuetan, hizlariak eta eskolaz kanpoko irakasleak ere ezin izaten dute saioa euskaraz eman. Eskolaren apustua ez da aldatzen, baina euskaraz ezin bada, gazteleraz egiten da.

Ikastaro asko gazteleraz egin behar izaten dira ikasle taldearen beharrei erantzun ahal izateko. Eskolaren apustua ez da aldatzen, baina euskaraz ezin bada, gazteleraz egiten da.

Euskaraz ezer ez dakien pertsona batek ezingo luke astialdiko ikastarorik Hezkiden egin; hortaz, gazteleraz egin ahal izateko, beste eskola baten berri emango genioke. Ezagutza maila ertain batekin, bere esku utziko genuke ikastaroan izena ematea edo ez, jakinda edukiak eta materiala euskaraz jasoko dituela.

Gizarte elebidun batean, gutxiengodun hizkuntza sustatzeko, ahalegin berezia egin behar da, hizkuntza hori hobetsiz ematen diren aukera guztietan.

Hezkuntza sistema formalean euskaraz nagusitatu bada ere,

hizkuntzaren normalizaziorako, haurren astialdian eragitea ezinbestekoa da; hots, eskolatik at egiten dituzten ekintzetan: kirola, astialdia, musika e.a., hauek baitira haur eta gazteek aukeratzen dituztenak, gustuko dituztelako.

Hezkuntza ez formalaren bitartez, etorkizunerako nahi dugun gizartea eraikitzeko aukera daukagu. Horregatik, astialdia euskaraz izatea funtsezkoa da. Herri euskaldun bat amesten dugu eta gure esku dauden baliabideak eskaintzen ditugu xede horretarako. ■

/// AHOTIK at

06/07

Iritzia //



JAUZI EGIN UHIN, PAPER eta PANTAILETARA

Albisteen hautaketarako irizpideen sukaldatze lan horretan erabilitako osagaiek sarri auzo, kale, herri eta hiriko elkarteak zulo beltzean ahanzi egiten dituzte.

> Unibertsitateko eta hamaika elkartetako hainbat komunikazio adituk mass-medietako lehenetsunak edota jomugak kolokan jartzeak, hedabide gehienek lerro editorialetan aldaketak egoteko itzaropena argitu izan badu ere ez da horrela izan.

Gure herrian bizi dugun gatazkak, politikan oinarrituriko albisteak, krisiak... kazetetako orriak betetzen dituzte. Salduko duen albiste non, kazetaria han. Editoreen esku dago publikoarengan interesa izango duten gaiak aukeratzea, hala ere albisteen hautaketarako irizpideen sukaldatze lan horretan erabilitako osagaiek sarri auzo, kale, herri eta hiriko elkarteak zulo beltzean ahanzi egiten dituzte. Mass-mediaren fagoietan salbuespenak ere badaude eta gazteen, 3^o adinekoen, emakumezkoen, etorkinen, ikasleen etabarren elkarten ahotsekin euren errezetak idazten dituzten sukaldari batzuk aurki ditzakegu. Hala ere, haien burua Michelin Gidako 4 izardun egunkarizat, telebistatzen edo irratizat duten hedabideetako editoreek elkartegintza ezohiko informazio iturri bihurtzen dute. Hori bai alderdi politikoei eta edozelango administraziori albiste iturri egokiaren islada hartzen zaie inolako zalantzarik gabe eta zilegitasun osoz. Interes asko ezkatzen dira hartueman hauen atzetik, denok ondo dakigun bezala hedabide gehienek ezkaratzen

(salbuespenak ere badaude, eskerrak) kolore ezberdinetako alderdiak edota mozkin aniztetako enpresak eskutik helduta bizi dira.

Puzzle honek kanpora begira erakusten duen leihorearen aurrean astialdi eskola, koordinakunde zein federazioek indarge ikusten dute euren burua. Hala ere saiatu, ekin, aritu, idatzi, kontatu beharra dago. Beldurra galdu behar diogu hedabideei gure ekimenen berri emateari. Askotan entzun izan ditut: “ez du merezi, ez gaituzte aterako”, “buf... elkarrizketa bat egiteak lotsa ematen dit”... Prentsaurrekoak, prentsa oharrak, iragarkiak, hedabideetan kolaborazioak... Hauek guztiak ezinbestekoak dira astialdi hezitzailearen alde egiten den lana gizarteratzeko, egiten ari garen eraldatze prozesua existitzen dela ikusi eta uler dezaten. Idatzi barik, kontatu barik, irakurri barik geratzen dena ez baita gure inguruan gu ezagutu gabe bizi direnentzako existitzen. Justuagoa izango den eta hedatzen gabiltzan enpatia eta elkartasun balioetan oinarrituriko jendarteak eraikiko duten gazteen atzetik bagabiltza, gazte horiek (eta haien ingurukoak) erakarri behar ditugu.

Astialdi taldeen koordinakunde batek bere urteko ekimenik potoloenak irratian, telebistan zein idatziriko prentsa orokorrari aditzera eman behar dizkio. Bai ala bai. Astialdi Eskola batek gauza bera egin beharko luke prestatzen

dituen ikastaroekin. Euskal hedabideen CIES ikerketaren datuak kaleratu berri dira; gurean irakurle gehien dituen egunkariak 469.000 irakurle ditu, gutxien dituenak 25.000. Irratirik entzutenak ia 300.000 entzule ditu eta telebistek orokorrean 800.000tik gora. Edizio digitalak ahaztu gabe noski. Baina bultzadak haratago egin behar du ere: herri, hiri edo auzo bateko astialdi talde txiki batek ere, ikasturteko plangintza komunikazioaz

Astialdi taldeen koordinakunde batek bere urteko ekimenik potoloenak irratian, telebistan zein idatziriko prentsa orokorrari aditzera eman behar dizkio. Bai ala bai.

arduratuko den pertsona bat antzeman beharko luke. Nahiz eta lan karga bat dela iruditu uste baino beharrezkoagoa den lan ardura arina da hau. Talde txiki horrek egingo duen kanpalekua jakitera emateko, iraileko urte hasierako jaiak aurkezteko, gabonetako jaialdiaren berri emateko, urtean zeharreko kaleko tailerrak aditzera emateko parean ditugun eta ia erabiltzen ez ditugun baliabideak daude: tokian tokiko hedabideak. Gipuzkoako bailaratan, Bizkaiko eskualdetan, Arabako kuadrilatan eta Nafarroako haranetan tokian tokiko irratian, egunkariak eta telebistak daude. ■

Alfre Elgezabal Burgos
EGK-ko Komunikaziorako Teknikaria.

ASTIALDIAREN ERRONKAK



Rafael Mendia Gallardo¹

> AISI HEZI fundaziokook, erreferentziako irizpide bat izatearren, "astialdi hezitzailea"-ren kontzeptua zehaztu beharko bagenu, hurrengo ezaugarri hauek bere osotasunean edo hein batean azaltzen al diren, edo ezaugarri hauetarako joera al dagoen ikertuko genuke:

- Astialdi hezitzailea lanarekin edo bestelako betebeharrekin okupatuta ez dagoen denboran, hau da, denbora librean garatzen da, haurrek eta nerabeek, astialdi hezitzailearen hartzaile gisa, askatasunez aukeratuta.

- Proiektuak helburu eta asmo hezitzaile argia du, osoko ikuspegi orokor batean haurren eta nerabeen pertsonalitate garatze prozesuan lagunduta.

- Ezaugarri hezitzailea talde batean ematen den pertsonen arteko erlazio parte hartzailean oinarritzen da.

- Pertsonaren garapeneko dimentsio ezberdinak jasotzen dituen ikuspegia du, dimentsio partziala baina ikuspegi globala asmo hezitzailea duten taldeak barneratuta: astialdi taldeak, antzerki, musika, kirol taldeak...

- Era hezitzaile batean planifikatzen duen talde hezitzaile baten presentzia du.

- Dimentsio berrietarako talde lana garatzen du, bizikidetzarako eta herritartasunarako hezkuntza kolektiboa garatzen du, hartzaileen esperientziak jasota eta proposamen zabalagoak dituen sare-lan baten barruan taldeen arteko eta erakundeen arteko lankidetzaz ezartzen du.

Horrela, jendartearekin eta jendartean eragin dituen aldaketekin etengabeko hizketa bultzatu egin behar da, izan ere hizketa horrek astialdi hezitzailearen erantzunak moldatzeko aukera emango du, gaur egungo testuinguruan haur, nerabe eta gazteen artean laguntzen, askatzen eta parte hartzea bultzatzen duen astialdi eskaintza bultzatzea inoiz baino beharrezkoa da eta.

Interes guneen inguruan taldeak bultzatu: ekologia, musika, dantza, antzerkia, astronomia, komunikazioa, pintura...

Etorkizunera begira astialdian lan egin nahi duten elkarteek muin hezitzailea izateko hiru ideiak nagusi azpimarratuko ditugu: **Herritartasuna** (herritartasun aktibo eta arduratsuan hezte); **Ekimena** (ekimen pertsonala eta talde ekimena garatzeko prestatzea); **Ikastea** (bizitza osoan zeharreko ikasketarako jarrera positiboa aktibatzea).

Osagarri hauek garatu ahal dira metodologia aktiboen bidez, zerbitzu solidario eta ikasketa-metodologiaren bidez eta jolas, abentura eta jai giroan oinarritzen diren beste batzuetan. Guztia hauek sendotuz joango dira adinaren arabera.

Etorkizunari begira jarrera kritikoaren aldeko apustua

Etorkizunari begira ezinbestekoa da talde finkoak hezitzaile finkoekin sustatzea nahiz eta talde horiek ez

diren administrazio, egitura edo elkarte zehatz bat izan behar.

• Talde hezitzaile finkoak egitura ezberdinekin testuinguruaren arabera, parte hartzaileen adin eta interesen arabera.

• Talde eta egitura malguak eskaintza anitzekin gogo, adin eta interesen arabera. Batzuetan jolasa eta natura izango dira nagusi internet, bideo-joku, telebista, mobila eta pasibotasuna eraldatzeko. Beste kasuetan langabezia, eskola-porrota, drogen eta alkoholaren kontsumoa, baztertzearren arriskua, haur eta gazteen ahulezi soziala aurre egiteko parte-hartzaileak izango dira euren eragileak, euren kudeatzaileak eta hezitzaileak, hausnarketara bultzatuko dutenak.

• Gazte, nerabe eta haurren interesen inguruan programa hezitzaileak dituzten taldeak. Non parte-hartzea, bizitza aktiboa eta hausnarketa-akzioa praktika arruntak diren.

• Pertsonaren garapenerako, burujabetzaren eta jendarteratzearen prozesuetarako, proposamen hezitzaileak. Interkomunikaziorako eta intererlaziorako taldeak; lankidetzarako eta elkar laguntzarako; elkartasunerako eta jendartearen hobekuntzarako; jolas eta kultura sorkuntzarako; kirol eta auzo garapenerako.

• Interes guneen inguruan taldeak bultzatu: ekologia, musika, dantza, antzerkia, astronomia, komunikazioa, pintura...

Agian gaia ez da garrantzitsuena eta prozesua azpimarratu behar dugu, pertsona eta taldea hazteko egitura, hiritar aktiboak izaten ikasteko eta administrazioaren menpean ez egoteko. Hona hemen astialdi hezitzailearen erronken gakoak. ■

/// AHOTIK at

¹ Rafael Mendia pedagogo da, AISI-HEZI Fundazioaren kidea (info@aisi-hezi.org; <http://www.aisi-hezi.org>) eta ZERBIKAS Fundazioaren Presidentea, Ikasketa eta zerbitzu solidarioa (rmendia@mac.com; <http://www.rafaelmendia.com>)

HEZKIDETZARAKO JOLASA

EMOZIOAK HARRAPATZEN!

Urtxintxa Bizkaia • www.urtxintxa.org

Helburua: Egoera ezberdinen aurrean, sor daitezkeen emozio ezberdinak identifikatzea eta ezagutzea.

Garapena: Bi talde osatuko ditugu eta taldekide bakoitzari emozio bat egokituko diogu. Talde bietan emozio berdinak banatuko ditugu. Hezitzailea bi taldeen erdian kokatuko da, zapi bat eskuan duela. Orduan, egoera bat islatzen duen esaldi bat oihukatuko du eta esaldi horrekin lotutako emozioa daukaten taldekideak, zapiaren bila aterako dira.

Helburua, zapia lehenbailehen hartu eta korrika, beste taldekideak harrapatu baino lehen, bere taldekideengana bueltatzea da. Ez da jokalaririk kaleratuko. Jokalari bat harrapatua denean, hau, harrapatu duenaren taldera mugituko da. Orditik aurrera, bikoteka arituko dira jolasten. Hau da, bi jokalariek emozio bakarra elkarbanatuko dute.

Adibidea:

Esaldia: Gaua da eta bakarrik nago basoan.

Esaldi hau entzutean, seguruenik, korrika aterako direnak *beldurra* emozioa dutenak izango dira.

Oharra: Gerta liteke, esaldi baten aurrean, emozio ezberdinak dituzten haurrak ateratzea. Hau da, aurreko adibidearen aurrean, *beldurra* daukan haurrak eta urduritasuna daukan ateratzea.

Kasu hauetan, egoera ezberdinen aurrean ditugun emozioak ezberdinak izan ahal direla azpimarratuko dugu, eta guzti guztiak errespetatzea garrantzitsua dela argi utziko diegu.

Hezitzaileentzako oharrak:

- Hezitzaileok, haurrak, norbere eta besteen emozioen kontziente izatera animatu beharko ditugu.
- Haurrak, euren burua, bestelako egoeretan proiektatzen ikas dezaten saiatuko gara.
- Egoera ezberdinak identifikatzen ikasiko dute, egoera bakoitzak eskaintzen diena baloratuz eta hauen aurrean, sortzen zaizkien emozioei izena ipintzen ikasiz.
- Argi utziko diegu, emozio guztien adierazpena eta sentipena, pertsona guztientzako ezinbestekoa dela eta horregatik, baztertzea baino, hauek lantzea garrantzitsua dela.

Baliabideak:

Zapi bat. Espazio aldetik leku zabal bat: jolastokia, kiroldegia, parkea...

Zergatik aukeratu duzue jolas hau?:

Sexismoaren ondorioetako bat, emozioak eta hauen adierazpena "emakumeen" eta "ahulen" gauzak direla pentsaraztea izan da.

Alderdi emozionalaren estigmatizazio negatibo honek (ahuleziarekin lotu izanak, hain zuen) emozioak alde batera uztea suposatzen du; kontutan

hartzen ez dugun alderdia bilakatu delarik.

Honek, pertsonaren garapen integrala guztiz oztopatu du, egunero sentitzen ditugun emozioekin zer egin ez jakiteak suposatzen duen zailtasunarekin.

Zentzu honetan, hezitzaileok, gurasook, irakasleok... haurren eta gazteen garapenean erantzukizun handia daukagula jakinda, "birziklapen" bat egin behar dugu eta emozio guztien adierazpena eta sentipena neska eta mutil ororentzako zilegi dela aldarrikatu.

GAZTATZKEEN BITARTEKARITZARAKO JOLASA

KUBOEN DINAMIKA

Bakeola • www.bakeola.org

Helburuak:

- Gatazka egoera bizitzea bitartekari gutxiekin.
- Erabaki-hartze prozesu adostuetan sakondu.
- Eguneroko gatazkei aurre egiteko estiloen inguruko hausnarketa egin.

Garapena:

Taldeka aldeko 8 zentimetroko laukiak egin. Hauen ertzak zeloarekin itsatsiak egon behar dira. Bakarrik onartuko dira baldintza hauek betetzen dituztenak eta ondo eginak egongo direnak.

SEI JOLAS, SEI GAI

Jolasaren bidez, pertsonen arteko harremanetarako balio berriak irakatsi eta ikasi ahal dira; era ludiko batean bizikidetzarako eta berdintasunerako balioak gara ditzakegu eta hauen adar asko: hezkidetzara, lankidetzara, gatazkeen bitartekaritza, aniztasuna... Hurrengo lerroetan elkarte eta erakunde ezberdinek haien jolasik onena aurkezten digute. Goazen!

Gehiago egiten duenak irabazten du. Hiru talde osatuko ditugu eta bakoitzak ordezkarik bat aukeratzeko du. Materialak ezberdin banatuko direnez negoziazioa ezinbestekoa suertatuko da laukiak egiteko behar diren beste materialak lortzeko. Bakarrik negoziatuko da ordezkarien bidez. Hauentzako negoziatzailearen gunea bilatuko da.



Hasteko leloak:

Leloak ematen dizkiegu: Guztientzako lelo orokor bat eta talde bakoitzari ezberdin bat.

a) Lelo orokorra:

“ Igaro ez bada ulertzeko zaila den ohiko gertaera bat bizitzen saiatuko gara” “Aldeko 8 zentimetroko kartulinazko laukiak eraiki beharko dituzue”

b) Talde bakoitzaren leloa:

- 1) Dena balio du, irabazi behar duzue kostara ala kostara.
- 2) Irabazi behar duzue nahiz eta besteek ere eskubidea izan.
- 3) Zaila daukagu irabazteko baina saiatuko gara, amore ematen ahaleginduko zarete eta gataska saihesteko beharrezkoa bada amore emango duzue.

Baliabideak:

8 kartulina, 2 erregela, 2 arkatz, 2 artazi eta 4 zelo.

Materialaren banaketa:

	Kartulina	Erregela eta arkatzak	Artaziak	Zelo
1. Taldea	1	2-1	1	3
2. Taldea	1	1	1	1
3. Taldea	6	0	0	1

eta gaztazkan murgiltzera bide ematen duen dinamika aktiboa eta esperientziala delako.

JOLAS KOOPERATIBOA

LANKIDETZARAKO LAPITZA

Intered-Kometa • www.kometak.com

Helburuak: Trebetasun sozialak aktibatzea. Jokalariak batera gauzak egiten ikastea. Arazoak modu sortzailean konpontzen erakustea. Bakoitzak bere jokabidea kontrolatzeko ahalmena sustatzea.

Nola jolastu:

Jokalari guztien artean marrazki bat egin behar dute, arazo bat konpondu. Horretarako, *lapitza zuloxoan jarri eta belkroarekin finkatzen da. Jokalari bakoitzari soka bat ematen zaio.*

Sokak plataformako zuloetan edo bolaren ardatzean lotu behar dira. Soka guztiak norabide guztietan era orekatuan banatu behar dira.

asmatu behar du.

Gela bat globoz bete daiteke, eta helburua arkatz zorrotz batekin globo guztiak lehertzea da.

Lantegi edo mintegietarako aldaerak:

Laberinto bat marraztea. Bidea aurkitu behar da banatze-lerroak zeharkatu gabe.

Taldeak gataska-egoera bat edo armonia-egoera bat adierazi dezake marrazki baten bidez.

	Marrazkia non egin	Lapitza
Eremu itxietan	Papera zeloarekin finkatu behar da mahai gainean edo lurtean	Argizarizko pintura, errotulagailua
Kalean	Gainazal lau eta garbi bat behar da hondar edo elur lautua izan daiteke.	Klarion lodiak. Makilak.

Adin tartea:

5 urtetik aurrera.

Partaide-kopurua:

2 eta 10 jokalaria artean.

Denbora:

20 minutu.

Zergatik aukeratu duzue jolas hau?

Lankidetzaren eta koordinazioaren funtsezkoak dira talde gisa funtzionatu ahal izateko eta helburu bera lortzeko. Kohesio eta sormen-giroa sortzen da taldean.

INTERED-KOMETA

Bengoetxea 4, behea - 20004 Donostia-San Sebastián

Tel. 943 29 38 47

HAS GAITEZEN JOLASTEN!

Denbora:

90 min.

- Taldeak egin, leloen eta materialen banaketa. (10 min)
- Kuboak eraikitzea. (30 min)
- Bateratze lana. (50 min)

Adin tartea:

7 urtetik gora.

Zergatik aukeratu duzue jolas hau?:

Erabakiak hartzera, eztabaidatzera

Haurrentzako aldaerak:

Marrazki bat egitea erabaki daiteke: Lore bat, etxe bat, eguzki bat eta abar. Edo gauza konplexuagoak, esaterako negua, uda...

Zirkuitu itxi bat egitea ere proposatu daiteke. Jolasaren helburua bide osoa ahalik eta azkarren egitea da, baina bidetik atera gabe.

Talde batek objektu bat marrazten du, eta beste taldeak zein objektu den

IKUSMEN URRITASUNA DUTEN ETA EZ DUTEN PERTSONEN ARTEKO JOLASA

XAKE-JOKUA, GUZTIENTZAKO JOLASA

O.N.C.E. • www.once.es

Jolasaren helburua:

Xake-jokoa praktikatu ahal da helburu ezberdinak lortzeko:

- 1) Entretanimendurako.
- 2) Gaitasun intelektualak (kontzentrazioa, memoria eta sorkuntza), emozionalak (autoestimaren eta gaitasunaren)

10/11



ahalegina sustatzea) eta sozialak garatzea.

3) Eskola heziketaren osagarria.

Garapena (jolasaren azalpena)

Ohiko xake-jokoa bezalako, ez da ezberdintzen.

Baliabideak

Ez da oso ezberdina ohikoarekin alderatuta. **Xake-taulak** dimentsio berberak mantentzen ditu eta aldatzen diren bi gauzak laukitxo guztiak zulutxo bat daukatela piezak sartzeko mugiri ez daitezela eta, bigarrena, laukitxo beltzak zuriak baino pixka bat gorago daudela. Bestetik, **pieza** beltzak goiko partean iltze-buruak dauzkate zurietatik ezberdintzeko. Neurri hauek jokua ondo garatzea bermatzen dute.

Denbora:

30 min.

Zergatik aukeratu duzue jolas hau?

Jolas honek ikusmen-urritasunaren artean zale asko ditu eta ohiko aisialdi praktika da kolektibo honetan. Nire ustez oso positiboa da. Dohain sozializatzailerik eta integratzaile asko ditu (adin, genero eta egoera fisiko ezberdinetako jokalaririk batu ditzake). Xakearen zirkuituetan ezintasunak dituzten pertsonen integrazioa sustatzen du (lehiaketak, klubak ...).

EUSKARA SUSTATZEKO JOLASA

ATSO ITSUA

Urtxintxa Gipuzkoa • www.urtxintxa.org

Jolasaren helburua:

Euskararen balio ludikoaz oharkabean jabetzea, motibatzea, Bide batez, euskarak bizitzako alor guztietan presentzia izatea.

Garapena:

1. Jolasa hasteko "itsua" nor izango den aukeratu behar da. Hau da, zotz egin ondoren begiak nori estaliko zaizkion erabakiko da. Itsua izango den lagunaren begiak zapi edo txapel batekin estali ondoren, honek besoak aurrealdera luzatuko ditu eta gainontzeko jolaskideek hatz banatatik helduko diote.
2. Jolaskide bakoitzak hatz banatatik helduta dutela, itsuaren abestiaren lehen zatia bi aldiz abestuko diote: ATSO ITSUAREN ETXEAN,

ATSO ITSUAREN ETXEAN. Itsuak, berriz, abestiaren bigarren zatiarekin erantzungo die: UNTXI AHOTSA ENTZUN ZEN!. Itsuak azkeneko hitza aipatzerakoan (ZEN hitza) partaide guztiak hatzak askatuko dizkiote eta korrika alde egingo dute.

3. Beste guztiak korrika abiatzen direnean itsuak hitz hauek oihukatuko ditu, ahalik eta azkarren: BAT, BI, HIRU, LAU, GELDI!. Azkeneko hitz hau esaterakoan (GELDI), korrika ari direnek dauden tokian gelditu behar dute.
4. Denak gelditu ondoren itsuak jolaskide jakin baten ahotsa entzun nahi duela esango du. Adibidez: ENTZUN NAHI DUT INTZAREN AHOTSA. Orduan Intzak dagoen tokitik erantzun beharko du: HEMEN NAGO. Honek lagunduko dio itsuari Intza non dagoen sumatzen. Beraz, itsua Intzaren ahotsa entzun duen tokirantz joango da eta Intza harrapatzen saiatuko da. Intzak ezingo du zegoen tokitik mugitu, ezta gainerako jolaskideek ere.
5. Harrapatzen duen laguna Intza bada, hurrengo txandan Intza izango da itsua. Intza harrapatzen ez badu, berriz, jolasa hasieratik errepikatuko dute itsua aldatu gabe.

Baliabideak:

Zapia edo txapela (begiak estaltzeko gai izango dena)

Denbora:

20 minutu

Adin tartea:

4 urtetik aurrera

Zergatik aukeratu duzue jolas hau?

Jolas berean jolas mota desberdinak biltzen direlako eta batez ere haurren oso gustukoa delako.

